

EH Bilduren hauteskunde ajea

Ez ginen asko izan Hego Euskal Herrian Podemosen garaipena iragarri genuenak. Inkestetatik haratago begiratu besterik ez zegoen, hauteskunde portaeraren serie historikoek eta kanpainaren bilakaerak erakusten zuten. Hegoaldean Pablo Iglesiasen alderdiak irabazi ez balu sorpresa izango zatekeen. Antzekoa esan daiteke EH Bilduren jaitsieraz, bere emaitzarik hoberenak 2011ko espainiar hauteskundeetan lortu zituen Amaiurrekin, lau urte beranduago emaitza horren boto herena baino gehiago (116.000) galdu du.

EH Bilduk galdu dituen boto-emaile gehienak abstentziora eta Podemose-ra joan dira. Ez bozkatzeko erabakia hartu dutenen artean nagusi izan dira ENAMen nortasun eta aldarrikapen historikoekin identifikatzen direnak. Sortuk hartu duen moderazio norabidearekin atsekabetuak, espainiar hauteskundeak aprobetxatu dituzte etxean gelditzeko.

Halere, EH Bilduren boto-emaile galera handiena Podemosen mesedetan izan da. Amaiurretik alderdi morera saltoa egin dutenen artean hiru talde bereiziko nituzke. Lehenengoa, EAEko politikan bosgarren espazioa bezala definitu izan den boto-emailearen parte bat, ezkerrekoa eta erabakitze eskubidearen aldekoa. Sektore hori 2011n umezurtz geratu zen Ezker Batuaren hondoratzearengatik, horregatik ez ziren gutxi izan Amaiur babestu zutenak. Koalizio berri, fresko eta anitz bezala ikusten zen. Aldiz, lau urte beranduago EH Bildu sektore politiko homogeenagoa bezala ikusten da. 2011n ilusioa eta aldaketaren esperantza EH Bildun bazegoen, 2015ean Madrilerara joan da bosgarren espazioaren posizio *naturala* ordezkatzeko duen alderdi batekin, Podemosekin.

Bigarren taldea boto taktikoarena da. Abenduaren 20an EH Bildutik zetorren



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

EH Bilduren boto-emaile galera handiena Podemosen mesedetan izan da. Amaiurretik alderdi morera saltoa egin dutenen artean hiru talde bereiziko nituzke. Lehenengoa, EAEko politikan bosgarren espazioa bezala definitu izan den boto-emailearen parte bat, ezkerrekoa eta erabakitze eskubidearen aldekoa

boto-emaile parte batek pentsatu zuen Podemos boterean egotea lagungarria izan zitekeela preso politikoaren egoera hobetzeko eta normalizazio politikoan aurrera egiteko. Antzekotasun batzuk ditu hirugarren taldeak, baina ez da

pragmatismoagatik mugitzen soilik, boto-emaile ideologizatua da. Inor gutxiri eskapatzen zaio EH Bilduk bere ezker-eskuin ardatzeko posizioa moderatu egin duela era sinbolikoan. Horren aurrean, boto-emaile ezkertiar batzuek beren lehentasun ideologikoak defendatzeko modu gisa Podemosi eman diote botoa.

Iritzi sortzaile askok defendatu dute Podemosek ez duela EH Bilduk baino posizio ezkertiarra, ezker-eskuin irudia politika publikoek eta programak soilik finkatuko balute bezala. Jendartearen parte handi batek ez dio jarraipenik egiten udal politikei eta are gutxiago programa politikoei. Ezker-eskuin ardatzeko posizioa finkatzeko garrantzitsua da alderdi batek ordezkatu nahi duena. Ez da baldintza nahikoa ezkerreko politikak egitea ezkerreko irudia izateko, baina ezkerreko irudia izateko beharrezko baldintza da ezkerreko posizioak ordezkatzeko, batez ere hiru dimentsioetan: a) sinbologian (kolore gorria, kartelak, leloak, eta abar); b) diskurtsoaren lehentasunetan (nori zuzentzen zaio eta zeinen arazoak aipatzen dira, zein dira hitz klabeak (langileria, klase xeheak, herria, aberastasunaren banaketa, eraldaketa soziala...) eta abar; eta c) Politikarien profiletan (generoa, lanpostua, klase jatorria, sinesmenak, nola aurkezten dira, transmititzen dutena eta abar).

Podemosek hauteskunde kanpainan (eta aurretik) EH Bilduk baino irudi askoz ezkertiarra landu du. Alderdi moreak errazago du ia ardatz bakarrean lehiatzen delako, aldiz, EH Bildu ardatz sozialaz gain nazionalen aritu behar da. Halere, orain arte ez du asmatu biak ondo uztartzen, agian bere mezu independentista luzaroan zokoratu egin duelako eta irudi ezkertiarra postmaterialismo eta postmodernismoarekin lurperatzen aritu delako. ■